

5^a EDICIÓN | PRIMARIA

CONCURSO ESCOLAR

HAZLO VERDE

MISIÓN #SALVEMOSLOS BOSQUES

CAMBIAR TU MUNDO ESTÁ EN TUS MANOS

UNIDAD DIDÁCTICA 3

**BASO-KOADERNOA ETA
EKINTZARA PASATZEKO
BESTE PORPOSAMEN
BATZUK**



LEROYMERLIN
Da vida a tus ideas

**DEMOS VIDA A UN
HÁBITAT MEJOR**

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA

1.1 NOLA LANDU UNITATE HAU?

2 INGURUMENAREN GAINEKO AKZIO ZUZENeko JARDUERAK.

3 BASO KOADERNOA



Zuen inguruko basoen egoera zehazteko balioko dizueten **ikerketa-jarduera sorta txiki bat eta datu bilketa** proposatzen dizkizuegu.

Berdin dio **landa eremuak edo hirikoak zareten, zuen gertuko ingurunea bizirik dago**, hirian zein landa eremuan.

Hori dela eta, garrantzitsua da edizio honetan tratatuko ditugun GJHetaz kontzientziatzea, bertako lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatea klima aldaketatik ondorioztatutako egoera berriei egokitzen joan zaizkielako, neurri handi batean, eta gutxien egokitu direnak erabat galdu arte desagertuz joan dira.


Horregatik garrantzitsua da basoak zaintzea eta, haietako baten batetik gertu bizitzeko zortetik ez badugu, basoak eman eta eskaintzen diguna baloratzea, hirigintzak eta basoek eskaintzen dizkiguten baliabideen erabilera neurrigabeak ingurune naturalaren gain duten inpaktuaren inguruan hausnartzearekin batera.

Espainia **baso-hedadura handiena duen europako bigarren herrialdea** da: 7.500 milioi zuhaitz, sueziaren atzetik.

Bere **baso-masa** azken urteetan %31 hazi da ingurugiroaren babesari esker.

Baso-inbentario Nazionalaren datuak dira

[Baso-inbentario Nazionalaren datuak dira.](#)



Irudiaren iturria: blogs.publico.es

Txikienentzat: Beha ezazu ondorengo taula. Bertan probintzia bakoitzeko zuhaitz-miloi kantitatea jasotzen da. Eska iezaiezu zure ikasleei probintzia bakoitzeko biztanle kopurua bildu eta gero zenbaki hori zuhaitz kopuruarengatik zatitzeko. Emaitzak biztanle bakoitzeko zuhaitz kopuru zehatza emango die.

1.1 NOLA LANDU UNITATE HAU?

Jarduera hauek zuen aurkezpen lana bideratzen eta **zuen sentsibilizazio kanpaina gidatzen** lagun zaitzakete.

Garapenaren zati honi ekin aurretik, **lanari 2. UDan proposatutako ikusketa eta eztabaidarekin ekitea** gomendatzen dizuegu, 15. GJHa testuinguruan kokatu eta haren garrantzia ulertzeko helburuarekin.

- 1. Zergatien eta ondorioen inguruan informatu eta sakondu** (baso-masaren inguruko bideoak eta datu eta txostenetarako estekak)
- 2. Ondorio negatiboetan amaitzen duten ekintzen inguruan eztabaidatu eta hausnartu** (bideoen ikuskaketa, bateratze-lana eta hausnarketarako eztabaida)
- 3. Soluzio aukerak baloratu**, urritasunak detektatu eta hobekuntzak proposatu kontzientzia indibidual eta kolektibozko konpetentzia eta jarrerak norbereganatuz (zuzeneko jarduerak, baso-koadernoak)
- 4. Taldean lan egin**, jarrera guztiak baloratuz, elkarlanean **komunitateari zuzendurik dagoen kontzientziazio kanpaina sortzeko**.

Iradokitutako jarduerak	Nola eta zein helbururekin	Sentsibilizazio kanpainaren helburua
Gure ingurumenari buruzko 5 jarduera taldean egiteko.	Zuen gertuko ingurunearen egoera eta hura hobetzeko zer egin dezakezen ikertu.	Ikasleek, familiekin, Udaletxeak eta gertuko inguruak parte hartzen duten jardueretan aktiboki ekarpenak egiteak zuen sentsibilizazio kanpainan komunitate osoa inplikatzeko lagunduko zaituztete.
Baso-koadernoak taldean egitea. Ikerketa eta datuen bilketa	Zuen inguruko basoen egoera iker ezazue nola dauden, haien baso-masa eta lurzoruaren egoera ezagutzeko. Bertako espezieak eta espezie inbasoreak bildu zuen komunitateko basoen patroia definitzeko.	Zuen ingurunea eta zuen basoen egoera aztertzeak zuen sentsibilizazio kanpainaren mezua definitzen lagunduko zaituztete. Basoa nola eta zein mailatan aurkitzen den konparatzeak haren egoera 15. GJHarekin bat datorren frogatzeko balioko dizue.
Egiaztapen zigiluak eta bertako enpresen jasagarritasun irizpideak.	Zuen probintzia edo Autonomia Erkidegoko enpresa-ehundura iker ezazue jasagarritasun irizpideak jarraitzen dituzten enpresak eta hori egiaztatzen dituzten zigiluak dituztenak frogatzeko.	Zuen kanpainan kontsumitzaileak eta enpresek izan behar duten paper aktiboa azpimarratzeak zuen kanpainari inguruan inpaktu handiagoa izaten lagunduko dio.

INGURUMENAREN GAINEKO AKZIO ZUZENAKO JARDUERAK.

OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia

Norberaren autonomia eta ekimenerako konpetentzia

Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkar eragiteko konpetentzia

15. GJHZ

UHAITZEN ETA BESTE LANDARE-ESPEZIE BATZUEN BIRLANDAKETA

Komunitatearentzako Zerbitzua

Zure ikasleekin higadurak eta suteek suntsitutako zonaldeak birlandatzeko edo ikastetxetik gertu aurki daitezken erabilerarik gabeko lugorri edo zonalde idorretan zuhaitzak eta beste landare-espezie batzuk landatzeko proiektu bat antolatu.

Zuhaitzek ingurugiroan jokatzen duten papera ezagutzeko helburuarekin, kartelak ipini edo komunitean hiri eta landa eremuan kutsaduraren eta baso-soiltzearen efektuei aurre egiteko zuhaitzak zaintzeak duen garrantziaz informatzen duten eskuorriak banatu.

Eskuratutako ikaskuntza

Hirigintzak ingurune naturalaren gain duen inpaktua baloratu.
Talde-lanerako trebetasunak.
Elkarrikeria eta erabakiak hartzea.
Ingurumenarekiko errespetu eta konpromezuzko jarrerak.

15. GJHK

UTSATUTAKO INGURUEN GARBIKETA

Komunitatearentzako Zerbitzua

Zure ikasleekin eta haien familiekin zabor bilketa-kanpainak antola itzazu, ikastetxetik gertuko edo herriko zonalde kutsatu edo zikinak, esaterako parke bat, ibaiertza, baso bat, zuhaitzia, hondartza, eta abarren garbiketan inplika daitezzen.

Eskuratutako ikaskuntza

Ingurugiroaren gaineko kontzientzia eta suposatzen duen kutsadura eta biodibertsitatearen galera arriskua dela eta, zaborra espazio naturaletan ez botatzeak duen garrantziaen kontzientzia garatu.

15. GJH	ZUHAITZ BAT BABESEAN HARTU
Komunitateare ntzako Zerbitzua	Eska izezaiozu ikasle bakoitzari auzoko, gertuko parkeko, patioko edo herriko zuhaitz bat babesean hartzeko. Ikasle bakoitzak bere izena karte batean ipin dezala, zuhaitzaren izen zientifikoa, landatze urtea eta abarren inguruan informatuz. Keinu eta konpromezu honen bidez, ikasle bakoitza zuhaitzaren zaindari edo behatzaile bilakatuko da, eta arazoren bat (ur falta, enborrean iltzatutako kartelak, egoera txarrean dauden adarrak...) antzemanaz gero udaletxeari hots egingo zaio komunitateko gainerako pertsonak partaide eginez eta haren kontserbazio eta balio ekologikoan inplikatur.
Eskuratutako ikaskuntza	Gertuko ingurune naturala ezagutu. Zuhaitzen kontserbazioaren garrantzia eta oxigenoa mantentzeko duten garrantzia baloratu. Erabakiak hartzea, autonomia eta erantzukizuna. Ingurugiroarekiko konpromezua.

15. GJH	ETXEAN EGINDAKO KONPOSTA
Komunitateare ntzako Zerbitzua	Balora ezazu ikaslegoarekin nola egunero zabor organiko kantitateak sortzen diren eta nola ongarri organikoak ingurugiroari eta komunitateari mesede egin diezaiekeen. Horretarako sor ezazue konpostagailu bat ikastetxeko jantokiko janari hondarrak ikastetxeko edo gertuko lorategietarako ongarri organiko bilakatzeko.
Eskuratutako ikaskuntza	Deskonposaketaren prozesu naturala eta berberak ingurugiroan dituen onurak ezagutu. Birziklapenaren eta zabor organikoa ongarri bilakatzeko transformazioaren inguruko kontzientzia hartu.



Batetik, baso-koaderno bat inguruneke, probintziako eta Autonomia-erkidegoko **baso-masa** ezagutzera bideraturik dago, eta bestetik, **basoak produzitzen dituen produktuak** ezagutzera, hau da, **hartatik datorren ekonomia** ezagutzera (laborantza mikologikoak, egur produkzioa, etab.).

- Eska iezaiezu zure ikasleei **lan-taldeka** ondorengo informazioa taula batean desglosaturik jaso dezatela, ondoren hura **partekatu** eta **zuen inguruneke baso-masa katalogatzeko**.
- Talde bat **baso-masaren inguruko informazioa** jasotzeaz arduratuko da, eta bestea **baso-industriaren** inguruko informazioaz.
- Ondoko taulan datuak aurkitzeko web ugari dituzue.
- Taulak aldi berean garatu beharreko azpitaldeak izango diren atal ugari ditu. Baso-masari buruzko informazioa jasotzen duten 7 atal eta basoko industriari buruzko beste 7.
- Jasotako informazio guztiarekin egin itzazue **zuen probintziako mapa ugari** zuhaitz espezieekin, **grafikoak jasotako datuekin**, egurraren **sektore produktiboen kokalekuarekin**, **espazio natural** eta parkeekin, **zuhaitz bitxiekin**, eta abarrekin **zuen basoen egoeraren inguruko ikuspegi globala izateko**.

OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Konpetentzia digitala	Ikasten ikasteko konpetentzia	Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkar eragiteko konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Konpetentzia linguistikoa
-----------------------	-------------------------------	---	-----------------------------	---------------------------

1. GURE INGURUNeko BASO-MASA EZAGUTZEN DUGU.

1. Klima.
2. Mendi sistemak, ibaiak eta luraren orografia.
3. Baso-masa hektareak.
4. Zuhaitz eta zuhaixka motak.
5. Basoetan bizi diren animaliak, inguruneke fauna eta flora.
6. Babestutako espazio naturalak: parke nazionalak, parke naturalak, erreserba naturalak, babestutako paisaiak eta monumentu naturalak.
7. Zuhaitz bitxiak, babes bereziko espezieak.

2. BASOKO INDUSTRIA EZAGUTZEN DUGU.

1. Basoko produkzioa: egur mozketak, erregai bezala erabiltzeko egurra eta erretxina.
2. Basoko produkzioa: Egurra eraiketarako eta altzarietarako taula eta konglomeratuak bilakatzea.
3. Basoko produkzioa: Egurra edukiontzi eta bilgarri bilakatzea.
4. Basoko produkzioa: paper eta zelulosa fabrikak.
5. Basoko produktuak: Eztia, onddo jangarriak, trufak eta beste elikagai batzuk.
6. Basoko produktuak: Animalientzako bazka, ehiza eta arrantza.
7. Basoko produktuak: baso jasangarriak.

Bilaketa digitalari ekiteko informazioa grafiko, mapa eta infografietan laburbildurik bila dezakezen **txosten eta webgune aukeraketa** bat errazten dizuegu.

Txosten honetan Espainiako baso-masari buruzko oinarritzko datu guztiak jasotzen dira. Datuak, estatistikak eta egoera mapak

Espainiako baso maparen zonaldekako banaketa.

Espainiako baso mapa. Autonomia erkidegoka.

Grafiko mapa eta deskribapen fitxak Espainiako basoetako espezie nagusien autoekologiarekin.

Deskribapen mapak Espainiako zuhaitzi aniztasunarekin.

Espainiako zuhaitz espezie nagusien grafika eta mapak.

Zuhaitz espezie nagusien grafika eta mapak. Probintziako konposizioa.

Espainiako arboladi formakuntzak.

Artadiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Pagadiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Ameztiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Pinu gorriaren pinudiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Aleppopinuaaren pinudiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Radiata pinuaaren pinudiak. Azalpena eta distribuzioa autonomia erkidegoka.

Espainiako babestutako espazio naturalak. Kartografia.

Espainiako autonomia erkidegoetako espezie exotiko inbasoreen katalogoa.

Baliabideak eta egur produkzioa

Basoko produktuak, elikagaiak